



INGURUMENEO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA, ORENDINGO HIRIGUNEAN DAUDEN HAINBAT ERAIKINETAN AHALBIDERATUTAKO GEHIENEZKO ETXEBIZITZA KOPURUARI DAGOKION ORENDINGO AA.SS ALDAKETA PUNTUALAK INGURUMEN ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN PROZEDURA BETE BEHARRIK EZ DUELA ZEHAZTEN DUENA

1.- Aurrekariak

2014ko maiatzaren 23an, Orendaingo Udalak kontsulta bat egin zion Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzari jakiteko Hirigunean dauden hainbat eraikinetan ahalbideratutako gehienezko etxebizitza kopuruari dagokion Orendaingo AA.SS.en aldaketa puntualak ingurumen gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoaren prozedura igaro behar ote duen argitzeko.

Idatziarekin batera Udalak kontsulta dokumentu bat erantsi zuen, 2012ko urriaren 16ko 211/2011 Dekretuak, planen eta programen ingurumen eraginaren ebaluazio estrategikoko prozedura arautzen duenak, 5. artikuluan zehaztutako atal bereziak jasotzen dituenak, planaren helburuak, aplikazio eremua, aurreikusitako ekintzak eta haien kokapena eta aplikazio eremuaren deskribapena, hain zuzen ere,

EAEko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorrak, otsailaren 27koak, I.A eranskinen 7. atalean xedatutakoarekin lotuta 211/2012 Dekretuak 4. artikuluan jasotakoaren arabera, Hiri Antolaketako Plan Orokorren aldaketek ingurumen eraginaren ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar dute ingurumenean eragin esanguratsuak izan ditzaketenean ondorengo kasuren bat gertatzen delako: a) legez ingurumen eraginaren ebaluazioa bete behar duten proiektuak onartzeko esparrua ezartzen dutenean; b) zuzenean nahiz zeharka Natura 2000 Sareko espazio bati modu nabarmenean eragin diezaieketenean, eta c) nazioarteko hitzarmenetatik edo natura ondareari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legedia edota EAEko natura zaintzeari buruzko legedia betez emandako izaera orokorreko arauetatik eratorritako ingurumen-babeseko erregimenean bat duten espazioei eragin diezaieketenean.

Halaber, Orendaingo Udalak proposatzen duen aldaketa izan liteke 1998ko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorrak, Euskal Herriko ingurumena babestekoak, I. A eranskinen 9. atalean planen edo programen aldaketa txiki gisa jasotzen dituen horietakoa izan daiteke.

Atal horretan eta 211/2012 Dekretuaren 5. artikuluan xedatzen da aldaketa mota horiek ingurumen eraginaren ebaluazio estrategikoa bete beharko dutela ingurumen organoak hartutako erabaki arrazoitu eta publikoaren bidez, baldin eta organo horrek erabakitzen badu eragin aipagarriak izan ditzaketela ingurumenean, 211/2012 Dekretuaren III. eranskinean jasotako irizpideak ezarri ondoren.

Horrenbestez, 211/2012 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ebazpen honen bidez ingurumen organo horrek arrazoitu eta erabakiko du aldaketa horrek eragin adierazgarririk sortzen ote duen ingurumenean 3/1998 Legearen I.A eranskinean jasotako egoerak eta aipatutako dekretuaren III. eranskinean ezarritako irizpideak kontuan hartuta; eta, ondorioz, adieraziko du aldaketak bete behar ote duen edo ez ingurumen eraginaren ebaluazio estrategikoaren prozedura.

Zentzu horretan, 211/2012 Dekretuak 5. artikuluan xedatzen du ezen erabaki hori hartu aurretik kontsulta egingo zaiela eragindako administrazio publikoei.



2.- Kontsulta eragindako administrazioei, pertsonei eta erakundeei

Proiektuaren ezaugarriari eta proiektuak hartzen duen lurralde esparruari buruzko informazioa oinarri hartuta, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak interesdun gisa identifikatu ditu eta, ondorioz, kontsulta egin die ondorengo administrazioei eta erakundeei, organo sustatzaileak idatzitako kontsultetarako ingurumen agiria bidalita:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondareko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza
- IHOBE
- Uraren Euskal Agentzia (URA)
- Tolosaldeko Zaborren Mankomunitatea
- Tolosaldea Garatzen S.A.
- Tolomendi
- Gaintzako Udala
- Baliarraingo Udala
- Abaltzizketako Udala
- Amezketako Udala
- Ikaztegietako Udala
- Alegiako Udala
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

Ingurumen agiri hori ikusgai egon da Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren interneteko atarian www.gipuzkoaingurumena.net, jendeak, oro har, eta interesdun orok egoki irizten dituzten ingurumen izaerako ekarpenak egin ditzaten.

Erantzunak bidaltzeko epea amaituta, ez da erantzunik jaso. Erantzunen bat jasoko balitz ebazpen hau eman ondoren, Orendaingo Udalera igorriko litzateke lehenbailehen, Arauen Aldaketa idazterakoan kontuan hartua izan dadin.

3.- Aldaketaren deskribapena

Orendaingo Udalak egin nahi duen arau aldaketa lurralde esparru oso txiki batera mugatzen da, existitzen diren 6 eraikin konkretuetara mugatzen baita eta ez du inolaz ere eraikinen eraikigarritasunean, profilean edota bolumetriari eraginik, eraikin horietako bakoitzak eduki ditzaken etxebizitza kopuruan soilik. Zehazkiago, Orendaingo hirigunean, lurzoru hiritar finkatuan dauden eta antolamenduaz kanpo dauden 1950. urtea baino lehenagoko etxebizitzarako eraikinetara mugatzen da, ondokoetara hain zuzen ere:

- Hirimendi (Kasko-gain 1.)
- Goikoetxea (Kasko-Gain 2.)
- Erretoretxea (Kasko-Gain 15.)
- Barbero-Etxe (Kasko-Gain 9.)
- Elizalde (Kasko-Gain 5. eta 6.)



Hori baimendu ahal izateko indarrean dauden Arau Subsidiarioetako 32. artikulua-*Etxebizitzen gehienezko kopurua* egokitu behar da. Gaur egun, artikulua honakoa dio:

Hiri lurraren mugetan zehaztu diren eta jada bertan dauden eraikin bakoitzari dagokion etxebizitzaren kopurua hirigintzako fitxan agertzen dena izango da. Jada bertan ditugun eraikinetan etxebizitzaren kopurua bere horretan mantentzen da.

Proposatzen dena 32. artikulua egokitzea da, goian aipatutako eraikinetan barne banaketaren bitartez, etxebizitza kopuru handiagoa ahalbideratuz, betiere jabetza horizontal erregimenen eta gaur egungo eraikigarritasuna handitu gabe.

4.- 3/1998 Legearen I A Eranskinean jasotako kasuen arabera azterketa

Aldaketa aplikazio eremua, Orendaingo hirigunea hain zuzen ere, ez dago 2000 Sareko espazio batean kokatuta eta ez du sare horretako espazio batean zuzenean ala zeharka inpaktu nabarmenik sortzen.

Halaber, ez dago kokatuta abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, Natura Ondarea eta Biodibertsitatearenak, 29. artikuluan xedatutako espazio natural babestuek erasandako eremuren batean, ezta ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, Euskal Herriko Natura Babestekoak, 13. artikuluan xedatutako eremu babestuetan ere. Horrez gain, ez dago arestian aipatutako 42/2007 Legeko 49. artikuluan xedatutako nazioarteko tresna babestutako eremuren batean kokatuta.

Arau subsidiarioen aldaketatik eratorritako proiektu posibleei dagokienez, indarrean dagoen legeriaren arabera, ez zaie ingurumen-inpaktuaren gaineko ebaluazioa egin behar, eraikin barruko obra proiektuetara mugatuko baidira.

Hortaz, ez ditu 3/1998 Legeko IA Eranskinaren arabera ingurumenean inpaktu nabarmenak sortuko dituela kontsideratzeko irizpideak betetzen.

5.- 211/2012 Dekretuaren III. eranskineko irizpideen arabera azterketa

Lehen ere azalduenez, arau subsidiarioen aldaketa lurralde esparru oso txiki batera mugatzen da, soilik existitzen diren 6 eraikin konkretuetara eragiten baitio eta ez du inolaz ere eraikinen eraikigarritasunean, profilean edota bolumetrian eraginik, eraikin horietako bakoitzak eduki ditzaken etxebizitza kopuruan soilik.

Aldaketak ez du lurzoru kontsumo berririk eragingo eta ez du baliabide natural zein nekazal baliabideen gainean inpakturik sortuko.

Sor daitezken inpaktu bakarrak etxebizitzaren obrak eragindakoak eta gune horietan gertatu daitekeen populazioaren hazkundera lotutakoak izango dira, baina edozein kasutan inpaktu edo eragin horiek oso txikiak izango dira.

Orendaingo Udalak proposaturiko Arau Subsidiarioen aldaketa Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren III. Eranskinean Ingurumenaren gaineko ondorioen garrantzi posiblea zehazteko finkatzen dituen irizpideak erabiliz aztertuta, **ingurumenean eragin nabarmenik sortuko ez duela** ondorioztatzen da.



Are gehiago, jadanik artifizializaturik dauden lurzoruen erabilera lehenesten duenez eta hiri lurzorua zabalkuntza saihesten duenez egungo eraikinetan etxebizitzak ahalbideratuz, aldaketa jasangarritasun irizpideekin bat datorrela ondorioztatzen da.

Horrenbestez, planen eta programen ingurumen eraginaren ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 5.3 artikuluan xedatutakoa eta 2012ko apirilaren 2ko 16/2012 Foru Dekretuak 7.6.b) artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuta, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako zuzendari nagusiak ondorengoa

E B A Z T E N D U

Zehaztea *Hirigunean dauden hainbat eraikinetan ahalbideratutako gehienezko etxebizitza kopuruari dagokion Orendaingo AA.SS.en aldaketa puntualak* **ingurumen eraginaren ebaluazio estrategikoaren prozedura bete beharrik ez izatea**; izan ere, egindako azterketaren ondoren, ikusi da aldaketa horrek ez duela eragin adierazgarririk sortuko ingurumenean.

Donostia, 2014ko ekainaren ..a

INGURUMENKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO ZUZENDARI NAGUSIA
Izp.: Ainhoa Iraola Apaolaza